

Finantza krisia eta higiezinaren sektorea Jardunaldiak

Etxebizitzako Behatokiak antolatutako jardunaldiak



EAEko Etxebizitzaren Behatokiak "Finantza-krisia eta higiezinaren sektorea" jardunaldiak antolatu ditu **maiatzaren 28 eta 29an, Bilboko Arte Ederren Museoan**.

EAEko etxebizitzarekin zerikusia duten gaietan sakontzen laguntzen duten jarduerak antolatzen jarraituz, 2008an "Etxebizitzaren alokairu soziala: ikuspegi eta esperientzia arrakastatsuak" jardunaldiekin hasitako gaia egituratutako topaketekin jarraitu nahi dugu.

Etxebizitzaren azpi-sektorea oso garai zaila bizitzen ari da, bi krisik bat egin dutelako aldi berean: **higiezinaren krisia** dugu, batetik, 1997-2007ko hedapen-ziklo izugarriaren ameneren ondorioz, eta 2008an dagoeneko oso egokitze gogorra eragin zuena, bai prezioetan bai eskainitako unitateetan; eta krisi hori areagotu duen **finantza-krisia** dugu, bestetik, mundumailako esparru globalizatuetan sortua eta sistema ekonomikoaren finantza-egitura astintzen ari dena, benetako ekonomiaren mundua eraikitzen duten jarduera ekonomikoaren finantzazioa, alegia.

Etxebizitza-eskaintzari bide emateko dauden zailtasunak eta enpresa eta familiek kreditua eskuratzeko dituzten oztopo handiak sistema ekonomikoaren egiturazko oinarriak estutasunean jarri duten bi krisien aldi bereko adierazleak dira. Sistema hori ukiezina zela pentsatu izan da luzaroan.

Bi krisiak gaitu egingo dira, noski, eta oparoaldiak biziko ditugu berriro ere, zalantzarik gabe.

Halere, behar-beharrezkoa da alternatibetan sakontzea eta gure ekonomian doikuntza handiak egitea, albait lehen aurrera egin eta, horrekin batera, lehen baino indartsuago eta norabide egokiagoekin abiatzeko

Higiezinaren sektorea suspertzen laguntzen duten konponbide berritzaileak aztertu behar dira, beraz, eta, horretarako, eredu ekonomiko eta finantzario berriak, oraingoak baino askoz ere sendago eta egonkorragoak, garatu behar dira.

Historian zehar atzeraldi ekonomiko larriren bat egon den etapa guztietan gertatu den bezala, oraingo egoeratik azkar batean ateratzekotan gauzak

bestela egin, tresna berriak garatu eta eragile ekonomikoen zeregina berrantolatu beharra dago, administrazio publikoen egitekoa indartuz. Finantzazio-baliabideak segurtatuta, ekonomiaren (eta sektorearen) suspertze orokorrari heldu ahal izango diogu, horren guztiaren azken helburua konponbideak eskaintzea eta pertsonen ongizatea lortzea dela ahaztu gabe. Hemen azaldutako arazoari heldu nahi diogu sektorearen ikuspegitik, baina arazoak gainditzeko tresna berritzaileak zabaltzeari emango diogu garrantzia gehienbat, sektorean eragina duten eragile ekonomikoak eta haien jardunbide egokiak oinarritzat hartuta.

Ondorioak

[Ondorioak \(pdf, 230 Kb\)](#)